

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Indargabetzea maiatzaren 14ko 75/2021 Foru Agindua, arautzen dituen Arabako Lurralde Historikoko adineko pertsonen eta desgaituen egoitza zentroetako bisitak eta irteerak COVID-19aren osasun krisialdian, alarma egoera bukatu ondoren, eta aldatu zuena ekainaren 23ko 95/2021 Foru Aginduak

2021eko maiatzaren 14an, Gizarte Politiken Saileko diputatuak 75/2021 Foru Agindua eman zuen. Agindu horrek arautzen zituen Arabako Lurralde Historikoko adineko pertsonen eta desgaituen egoitza zentroetako bisitak eta irteerak COVID-19aren osasun krisialdian, alarma egoera bukatu ondoren. Ekainaren 23an, berriz, 95/2021 Foru Agindua eman zuen, 75/2021 Foru Agindua aldatzen zuena.

2021eko maiatzaren 7an, lehendakariak 23/2021 Dekretua eman zuen, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio neurriei buruz, azaroaren 3ko 956/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaraturako alarma egoera maiatzaren 9an bukatu eta gero. Pandemiaren bilakaera positiboaren ondorioz, ekainaren 18an, lehendakariak 30/2021 Dekretua eman zuen, bigarrenaldian aldatzen zuena maiatzaren 7ko 23/2021 Dekretua, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio neurriei buruzkoa, eta 38/2021 Dekretua, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio neurriak testu bakar batean bildu eta eguneratu eta zehaztu zituena. Dekretu horiek guztiak hedapena geldiarazteko neurriak egokitzen joan ziren pandemiaren bilakaerara eta euskal gizartearen txertaketa prozesura.

Urriaren 6an, lehendakariak 39/2021 Dekretua eman du, COVID-19aren pandemiaren ondoriozko osasun larrialdiko egoera Euskadin amaitu dela adierazten duena eta normaltasun berri batean sartzeko neurriak zehazten dituena. 39/2021 Dekretuaren lehenengo artikulua xedatzen du ezen amaitu dela COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legearen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera egun horretara arte indarrean egon den osasun larrialdiko egoera. Bigarren artikulua, aldiz, xedatzen du osasun larrialdia amaitzeak berekin dakarrela, dekretu horretan xedatutakoaren arabera, ondorioak berehala galtzea lehendakariaren irailaren 17ko 38/2021 Dekretuan jasotako neurri guztiek.

Neurrien eraginkortasuna galtzearen ondorioz, aldi berean berrezarriko da dekretu horretan jasotako edo aipaturako jarduera bakoitza ohiko izaeraz diziplinatzen duen araudi oro, eta kendutzat joko dira ezarritako murrizketa, debeku edo mugapen berezi eta espezifiko guztiak.

Bestalde, mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eta desgaituentzako Arabako Lurralde Historikoko egoitza zentroen erabiltzaileei eta Arabako Foru Aldundiak titulartasun pribatuko hainbat zentrotan itundutako plazetan daudenei eta langileei txertoa ipintzeko prozesuak berekin ekarri ditu COVID-19aren ondoriozko hilgarritasunik eza eta zentro horietan gaixotasuna desagertzea.

Alabaina, osasun larrialdi egoera amaitu bada ere, COVID-19ak sortutako osasun krisiari aurre egiteko presako prebentzio, euste eta koordinazio neurrien martxoaren 29ko 2/2021 Legeak 10. artikuluan xedatzen du administrazioek zaindu behar dutela beren jarduera normala kutsatze arriskuei une orotan aurre hartzea ahalbidetzen duten baldintzetan egin dadin. Halaber, urriaren 6ko 39/2021 Dekretuaren 5. artikulua xedatzen du Euskadin osasun krisia eta osasun larrialdiko egoera gainditu arren, Osasun Sailak une oro zehaztu ahal izango dituela osasun dispositiboak aktibatzeke erritmoa eta beharrianak, bai eta osasun publikoaren zaintzari eta

kontrolari dagozkion prebentzio eta euste neurriak berraktibatu, berreskuratu edo abian jarri ere, COVID-19aren pandemiaren aurrekaria kontuan hartuta, eta jarraipen sistematikoari eta kasuen eta kontaktuen kudeaketa eraginkorrari eutsita.

2021eko urriaren 6an, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak agindu bat eman zuen, zeinaren arabera herritar guztiek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte COVID-19aren gaixotasuna hedatzeko arriskurik ez sortzeko, bai eta norberak arrisku horiekiko duen esposizioa saihesteko ere. Kautela eta babes betebeharrak hori edozein jardueraren titularrei ere eskatuko zaie. Era berean, errespetatu egin beharko dira osasun agintariak COVID-19a prebenitzeko ezartzen dituzten segurtasun eta higie-neurriak, bai eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak ezartzen dituen jarraibideak ere. Oro har, toki publikoetan, pertsonen artean 1,5 metroko distantzia uzten saiatu beharko da, eta arreta berezia jarri beharko da esparru itxietan. Distantzia hori uzterik ez dagoenean, higie-neurri egokiak hartu beharko dira kutsadura arriskua prebenitzeko, eta, nolahi ere, ahalik eta distantziarik handiena utzi beharko da pertsonen artean.

Era berean, ahal dela, eskuak gehiagotan garbitu beharko dira, eta, horretarako, soluzio hidroalkoholikoa edo ura eta xaboia erabili beharko dira.

Horregatik, behin alarma egoera indargabetuta, eta lehendakariak osasun larrialdiko egoera amaitutzat eman ondoren, indargabetu egin behar da maiatzaren 14ko 75/2021 Foru Agindua (ekainaren 23ko 95/2021 Foru Aginduak aldatua), eta ohiko bisita eta irteera araubidea berrezarri behar zaie Arabako Lurralde Historikoko adinekoentzako eta desgaituentzako egoitza zentro publikoetako erabiltzaileei, bai eta Foru Aldundiaren titulartasuneko plazetan dauden erabiltzaile guztiei ere.

Oinarritzat harturik abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, sail honek eskumena du beharrezko jarraibideak emateko, zentroek behar bezala funtziona dezaten eta erabiltzaileen eta langileen osasuna bermatzeko.

Indarrean dagoen araudian esleitutako eskumenen arabera, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Indargabetzea maiatzaren 14ko 75/2021 Foru Agindua, arautzen dituen Arabako Lurralde Historikoko adineko pertsonen eta desgaituen egoitza zentroetako bisitak eta irteerak COVID-19aren osasun krisialdian, alarma egoera bukatu ondoren, eta aldatu zuena ekainaren 23ko 95/2021 Foru Aginduak, eta berrezartzea COVID-19ak eragindako epidemiaren aurretik indarrean zegoen bisita eta irteera araubidea.

Bigarrena. Gomendatzea bai adinekoentzako eta desgaituentzako egoitza zentroetan bizi direnei, bai haiek bisitatzen dituzten senideei eta hurbilekoei higie-neurriak eta babes neurriak har ditzatela eta bisitak egiten diren bitartean jende pilaketak ekidin ditzatela eta gainerako bisitarietarako 1,5 metroko distantzia uzten ahalegindu daitezela.

Hirugarrena. Foru agindu hau 2021eko urriaren 7an jarriko da indarrean, ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela ere.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 7a

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua
EMILIO SOLA BALLOJERA

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria
ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ